

Mondragon Unibertsitateko goi-ingeniaritzako tituludunei diplomak emateko ekitaldia.

2010/05/10

Joan zen ostiralean Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zenbait espezialitateko titulua lortu duten ikasleri eta 16 doktoreri diplomak emateko ekitaldia ospatu zen. Honako hauek dira espezialitateak: Industria Automatikako eta Elektronikako Ingeniaritza, Industria Ingeniaritza, Informatika Ingeniaritza, Telekomunikazio Ingeniaritza eta Industria Antolakuntzako Ingeniaritza.

Ekitaldi akademikoan Juan Antonio López de Uralde, Espainiako Greenpeace-eko zuzendariak parte hartu zuen. Klima-aldaketaren ondorioei eta energia berriztagarrien enplegu-aukerari buruzko hitzaldia eskaini zuen.

Guztira 168 ikaslek jaso zuten Ingeniaritzako titulua.. Sexuen araberako analisiak erakutsi duenez, tituludun berrietatik %25 emakumezkoa da. Karreren araberako analisiak, berriz, agerian utzi du iazko ikasturteko tituludunen portzentajerik handiena Industria Ingeniaritzakoa dela: 50 ikaslek lortu dute diploma hori. Bigarren karrera nagusia ikasle kopuruaren aldetik Informatikako Ingeniaritza da: guztira 33 ikaslek burutu dute karrera hori.

Titulu horiek lortzeko, ikasle guztiek karrera-amaierako proiektua egin behar izan dute, urtebete ingurukoa, enpresaren batekin elkarlanean.

Enpresa horietako asko atzerriko herrialdeetan daude, hala nola, Frantzia, Danimarkan, Alemanian, Polonian, Suedian, Belgikan, Erresuma Batuan, Txekiar Errepublikan edo Irlandan.

